

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2021eko apirila

2021eko apirilean, Euskal AEko landetxeetan igarotako gauak % 66 gehitu dira martxoarekin alderatuta, eta % 8,5 apartamentu turistikoetan

Landetxeen % 18,0 eta apartamentu turistikoen % 13,5 itxita egon dira apirileko egun guztietan

Eustatek landutako datuen arabera, 2021eko apirilean 6.278 sarrera eta 20.017 gaualdi izan dira Euskal AEko **landetxeetan**; beraz, 2021eko martxoaren aldean % 15,4 eta % 66,0 gehitu dira, hurrenez hurren.

COVID19aren pandemiari aurre egiteko 2020ko martxoaren 14an agindutako alarma-egoeratik aurrera, mugikortasunaren gaineko muga aldakorra izan da. Ostatu-jarduera osasun arloko eta funtsezko langileetara murriztu zen 2020ko apirilean, eta, beraz, serie gehienak ez ziren argitaratu, sekretu estatistikoa eta kalitate estatistikoko irizpideak babestu zirelako. Horregatik, ezinezkoa da 2020ko apirilarekin urte arteko edozein alderaketa egitea. Ondoren, denborazko alderaketa 2021eko martxoarekin egingo da.

Euskal AEko landetxeetako sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia eta betetze-mailak. 2021eko apirila

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
	2021/04	m/m-1 (%)	2021/04	m/m-1 (%)	2021/04	2021/03	plazaka		gelaka	
							2021/04	p.p.*	2021/04	p.p.*
EUSKAL AE	6.278	15,4	20.017	66,0	3,19	2,22	16,1	5,8	19,4	5,7
Estatukoak	6.158	16,1	19.492	66,3	3,17	2,21	-	-	-	-
Atzeritarrak	120	-11,1	525	58,1	4,38	2,46	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	1.601	59,5	4.615	92,1	2,88	2,39	16,2	6,9	18,8	7,6
Estatukoak	1.601	59,5	4.601	92,6	2,87	2,38	-	-	-	-
Atzeritarrak	0	:	14	:	-	-	-	-	-	-
BIZKAIA	1.971	72,3	5.851	142,1	2,97	2,11	16,7	9,2	19,8	8,2
Estatukoak	1.929	73,9	5.691	144,0	2,95	2,10	-	-	-	-
Atzeritarrak	42	20,0	160	88,2	3,81	2,43	-	-	-	-
GIPUZKOA	2.706	-17,8	9.551	32,0	3,53	2,20	15,7	3,5	19,4	3,5
Estatukoak	2.628	-17,6	9.200	31,4	3,50	2,20	-	-	-	-
Atzeritarrak	78	-22,0	351	50,6	4,50	2,33	-	-	-	-

p.p.*= aurreko hilabeteko berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Euskal AEko landetxeetan erregistratutako pertsona gehienak Estatukoak izan dira. Bizilekua atzerrian duten 120 pertsona bakarrik izan ziren erregistratuak 2021eko apirilean, eta Estatuko 6.158. Aurreko hilabetearekin, 2021eko martxoarekin, alderatuta, zifra horiek ekarri dute % 16,1 igo direla Estatuko sarrerak, eta % 11,1 jaitsi direla atzerrikoak. Gaualdiak, aldiz, gehitu egin dira hil batetik bestera, bai Estatukoak (% 66,3ko igoera) bai atzerrikoak (% 58,1koa).

Aurrekoaren ondorioz, 2021eko apirilean batez besteko egonaldia 3,19 egunekoa izan da; aurreko hilean, ordea, 2,22 egunekoa izan zen. Batez ere, turista atzeritarren batez besteko egonaldia luzatu egin da: 2021eko martxoan 2,46 egunekoa zen, eta 2021eko apirilean 4,38koa.

Sarrerak gehien igo diren lurraldea Bizkaia izan da, aurreko hilean baino % 72,3 gehiago; ondoren Araba dago, hil arteko % 59,5eko igoerarekin. Gipuzkoan, aldiz, sarrerak % 17,8 jaitsi dira. Hil arteko bilakaera positiboa izan da hiru lurraldeetan gualdi-kopuruari doakionez: Bizkaian % 142,1, Araban % 92,1 eta Gipuzkoan % 32,0.

Batez besteko egonaldia 2,39 egunekoa izan zen martxoan eta 2,88 egunekoa apirilean Araban; 2,11 egunetik 2,97 egunera iragan da Bizkaian; eta, azkenik, Gipuzkoan batez besteko egonaldia 2,20 egunekoa izan zen martxoan eta 3,53 egunekoa apirilean.

Gelakako okupazio-maila, aurreko hilaren aldean ehuneko 5,7 puntu igo ondoren, % 19,4koa izan da apirilean. Lurraldeen arabera, kopuruak antzekoak dira: % 19,8 Bizkaian, % 19,4 Gipuzkoan eta % 18,8 Araban. Era berean, hilabete batetik bestera ehuneko 5,8 puntu igo ondoren, Euskal AEko landetxeetako plazen arabera okupazio-maila % 16,1era iritsi da apirilean. Bizkaian % 16,7koa izan da, Araban % 16,2koa eta Gipuzkoan % 15,7koa.

Itxita mantendu diren landetxeak (%)

	EUSKAL A.E.			ARABA/ÁLAVA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	2021	2020	2019	2021	2020	2019	2021	2020	2019	2021	2020	2019
Urtarrila	31,4	26,5	25,5	34,0	20,6	21,8	37,4	31,8	25,8	26,0	26,2	27,4
Otsaila	31,1	23,7	24,3	33,0	13,7	15,8	35,9	30,2	28,1	27,0	24,6	26,3
Martxoa	22,8	23,1	17,5	19,8	15,2	10,9	29,8	27,1	18,1	19,9	24,7	20,5
Apirila	18,0	92,7	11,6	16,8	97,1	6,8	19,5	91,4	12,5	17,6	91,2	13,6
Maiatza		60,9	12,1		71,4	6,8		57,8	14,1		57,2	13,6
Ekaina		33,4	11,4		35,2	6,9		32,6	12,6		33,0	13,1
Uztaila		18,6	8,3		16,2	5,9		21,4	8,7		17,9	9,4
Abustua		16,1	8,1		11,4	5,9		18,6	9,4		17,0	8,4
Iraila		15,4	8,1		11,4	6,9		17,7	9,4		16,0	7,9
Urria		18,0	10,0		16,0	4,9		19,2	12,4		18,2	11,0
Azaroa		28,6	13,5		25,5	6,9		35,9	20,2		25,5	12,6
Abendua		30,7	15,6		27,4	11,8		37,4	20,9		28,0	14,1

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

2021eko apirilean, landetxeen % 18,0 itxita egon dira hileko egun guztietan; martxoan, berriz, % 22,8 izan ziren. Joera antzekoa izan da hiru lurraldeetan: apiril osoan itxitako landa-establezimenduak % 16,8 izan ziren Araban, % 17,6 Gipuzkoan eta, azkenik, % 19,5 Bizkaian.

APARTAMENTU TURISTIKOAK

Apartamentu turistikoei dagokienez, 2021eko apirilean sarrerak eta gualdiak 4.114 eta 22.552 izan dira, hurrenez hurren. Aurreko hilabetearen aldean, sarrerak % 3,7 gehitu dira, eta gualdiak % 8,5.

Estatutik etorritako sarrerak % 4,5 igo dira hil artean, eta atzeritik etorritakoak % 9,6 jaitsi. Gualdiei doakionez, % 10,0 gehitu dira Estatukoak % 0,8 atzerrikoak. Apirilean, batez besteko egonaldia 5,48 egunekoa izan da, aurreko hilean baino zertxobait luzeagoa (5,24 egun).

Lurraldeen arabera, 2021eko martxoarekiko bilakaera ez da homogeneoa izan. Hala, Gipuzkoan sarrera-kopurua % 13,9 igo da, Bizkaian % 0,5 hazi da, eta Araban, ordea, % 5,1 jaitsi da. 2021eko apirilean, guztira, martxoan baino % 11,3 gau gehiago igaro dituzte bidaiariak hala Gipuzkoan nola Araban; Bizkaian, berriz, igoera apalagoa izan da, % 0,9koa.

Aldakuntza horien ondorioz, Euskal AEko apartamentu turistikoetako batez besteko egonaldiaren bilakaera desberdina izan da: Araban martxoko 7,63 egunetik 8,96 egunera igo da apirilean, Bizkaian ia aldaketarik gabe mantendu da (2,72 egun martxoan eta 2,73 egun apirilean) eta Gipuzkoan, aldiz, martxoko 8,09 egunetik apirileko 7,90 egunera jaitsi da.

Sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta betetze-mailak Euskal AEko apartamentu turistikoetan. 2021eko apirila

	Sarrerak		Gualdiak		Batez besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
	2021/04	m/m-1 (%)	2021/04	m/m-1 (%)	2021/04	2021/03	plazaka		apartamentuka	
							2021/04	p.p.*	2021/04	p.p.*
EUSKAL AE	4.114	3,7	22.552	8,5	5,48	5,24	21,5	0,9	44,6	-0,1
Estatukoak	3.910	4,5	19.244	10,0	4,92	4,68	-	-	-	-
Atzeritarrak	204	-9,6	3.308	0,8	16,25	14,57	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	654	-5,1	5.863	11,3	8,96	7,63	21,5	2,8	53,9	4,0
Estatukoak	630	-5,4	5.141	8,0	8,16	7,14	-	-	-	-
Atzeritarrak	24	4,3	722	43,2	29,83	21,74	-	-	-	-
BIZKAIA	2.058	0,5	5.613	0,9	2,73	2,72	15,5	0,0	33,0	-3,4
Estatukoak	1.968	0,5	5.092	5,6	2,59	2,46	-	-	-	-
Atzeritarrak	90	0,7	521	-29,4	5,81	8,30	-	-	-	-
GIPUZKOA	1.402	13,9	11.077	11,3	7,90	8,09	26,7	-0,2	47,0	0,0
Estatukoak	1.312	17,4	9.011	13,9	6,87	7,08	-	-	-	-
Atzeritarrak	90	-20,7	2.066	1,2	23,00	18,03	-	-	-	-

p.p.*= aurreko hilabetearekiko ehuneko-puntu aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Euskal AEko apartamentuen arabarako okupazio-maila % 44,6koa izan da 2021eko apirilean. Lurraldeka, Araban % 53,9koa izan da, Gipuzkoan % 47koa eta Bizkaian % 33,0koa. Plazakako betetze-maila beherago dago, ezen % 21,5ekoa izan da Euskal AE osorako. Lurraldeka, Gipuzkoan % 26,7koa izan da, Araban % 21,5ekoa eta, azkenik, Bizkaian % 15,5ekoa.

Euskal AE osoan, apartamentuen % 13,5 itxita egon dira 2021eko apirileko egun guztietan, aurreko hilean baino ehuneko 5 puntu gutxiago. Hileko egun guztietan itxitako apartamentuen proportzioa % 16,7 izan da Araban (martxoan baino ehuneko 0,7 puntu gutxiago), % 16,4 Gipuzkoan (martxoan baino ehuneko 4,8 puntu gutxiago) eta, azkenik, % 6,3 Bizkaian (martxoan baino ehuneko 8,9 puntu gutxiago).

Itxita mantendu diren apartamentu-turistikoen establezimenduak (%)

	EUSKAL A.E.			ARABA/ÁLAVA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	2021	2020	2019	2021	2020	2019	2021	2020	2019	2021	2020	2019
Urtarrila	24,1	21,3	12,5	21,7	13,6	10,0	15,2	21,4	12,0	30,8	25,0	14,3
Otsaila	25,0	21,3	12,2	21,7	13,6	10,0	18,2	21,4	12,0	30,8	25,0	13,5
Martxoa	18,5	18,0	8,5	17,4	13,0	5,0	15,2	22,6	4,0	21,2	17,4	13,5
Apirila	13,5	78,0	6,1	16,7	73,9	5,0	6,3	74,2	4,0	16,4	82,6	8,1
Maiatza		55,0	6,0		43,5	5,0		54,8	3,8		60,9	7,9
Ekaina		27,7	4,7		30,4	4,8		16,1	0,0		34,0	7,9
Uztaila		14,6	4,7		21,7	4,8		6,3	0,0		16,7	7,9
Abustua		11,8	5,9		13,0	4,8		6,3	0,0		14,9	10,5
Iraila		11,8	5,9		13,0	4,8		6,3	3,8		14,9	7,9
Urria		14,2	5,5		13,0	4,8		12,5	3,7		15,7	9,3
Azaroa		29,6	8,5		26,1	4,5		81,8	7,1		32,7	11,4
Abendua		25,0	14,1		17,4	4,5		18,2	14,3		32,7	9,1

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Informazio-oharra

Landetxeen ETHren erantzun-tasa % **95,0koa** izan da, eta Apartamentu Turistikoena % **88,3koa**. Eustatek eskerrak ematen dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: Tlf.: 945 01 75 62